



Ane Ortiz de Zarate - Maite Landaluze
Aixerrota BHI
2015-16

AURKIBIDEA:

Irati Jimenez.....	3
Sarrera.....	3
Atsekabe zaitut:	
• Kokapena.....	3
• Gaia.....	4
• Argumentua.....	4
• Istorioa.....	4
• Egituraketa.....	5
• Pertsonaiak.....	5
• Baliabideak.....	5
Iritzia.....	6
Bibliografia eta webgrafia.....	7

IRATI JIMENEZ

Irati Jimenez Uriarte Mundakan, Bizkaian, 1977. urtean jaiotako euskal idazlea da. Baina horretaz gain, Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian kazetari aritu da. Edorta Jimenez idazlearen alaba da. Kultura eta gizarte gaiak jorratzen zituen Nabarra aldizkariaren azken zuzendaria izan zen eta gaur egun, *Consumer Eroski* aldizkari eta webgunearen euskara edukien arduraduna izateaz gain, enpresei internetarako aholkularitza eta zerbitzuak ematen lan egiten du.

Literatura munduan sarturik, Irati Jimenezek sari desberdinak lortu ditu. 2006an, *Augustin Zubikarai nobela laburren saria* irabazi zuen *Bat, bi, Manchester* eleberriarekin; urtebete geroago akzesita lortu zuen *Igartza Sarian* bere bigarren eleberriarekin, “Nora ez dakizun hori”, eta liburu horrekin gainera, 2010ean, irakurleek ematen duten *Beterriko Liburua Saria* eskuratu zuen. Horretaz aparte, *Donostia Hiria saria* ere irabazi zuen “*Laranja azalaren negarra*” ipuinarekin. Baina bere idazlanen artean, sariez gain, 2010ean idatzitako *Atsekabe zaitut* liburua dago, guk orain aztertuko duguna hain zuzen.

SARRERA

Irati Jimenezen 2010eko eleberri honetan, misterioa, intriga eta maitasunik eza dira nagusi, atsekabearen mafia moduko bat oinarri hartuta. Bilbo hiria kokapen geografikotzat duen istorio honen protagonista nagusia Eme da, baina Hamar ere protagonistatzat har daiteke. Eme eta Hamar bi pertsona dira, Katu Kaleko atsekabearen mafian sarturik daudenak, non beraien lana bi katutan itxuraldatu eta pertsonen haien barruan atsekabea sartzea den. Istorioan zehar beraiek atsekabea eragin dieten pertsonen egoera desberdinak azaltzen dira, baita biak horrekin nola sentitzen diren ere, baina betiere maitasun kontuak alde batera utzi barik.

Nobela hau, erotikotzat ere har daiteke, liburua aurrera doan heinean deskribatzen diren gertaera desberdinen eraginez, nahiz eta eleberriaren ardatz nagusia ez izan. Gainera istorioan metaforak dira nagusi eta beraz askotan ezer ez da lehen bistan dirudiena.

ATSEKABE ZAITUT

KOKAPENA

Eleberri hau Bilbon, Bizkaiko hiriburua den hirian, kokaturik dago, baina ez Bilbo osoan zehar. Istorio hau, gehienbat Katu Kale izeneko lekuetan kokaturik dago, hiriko lekurik ilunenetan non atsekabea den nagusi eta atsekabe horren garraiatzaile diren katuak bizi diren. Protagonistak bertan kokatzen dira, nahiz eta bertakoak ez izan, baina behin bertako jardueretan sartuz gero ezin daitezke bertatik irten.

Garaiari begiratuz gero idazleak ez du zehazki aipatzen, baina nahiz eta hitzez ez adierazi argi uzten du gaur egun gertatzen dela. XX. edo XXI.mendean izan behar du, istorioan zehar garaiko datuak ematen baitira, ezin da lehenago izan, 1984.urtean Athletic-ek liga eta kopa irabazi zituen azken aldia aipatzen baita eta gainera telebistan Simpsondarrak ikusten ari direla

azaltzen da. Horretaz guztiaz gain, gaur eguneko gertaerak eta objektuak aurkitzen dira, neska gazteak mutilarekin mugikorrean whatsapp erabiliz hitz egiten duenean, adibidez; beraz, zehatzago esanez XXI. mendea izan behar da, whatsapp XXI. mendeko aplikazioa baita, XX. mendean existitzen ez zena.

GAIA

Istoria, izenburuan argi esaten denez, atsekabeen oinarritzen da, non bi protagonistak atsekabea mundutik zabaltzeko mafia batean bezala sartuta dauden. Horretan pertsonaia bakoitzaren sentimenduak ere tartean sartuko dira, bai amodio kontuak, baita pentsamenduak ere, eta horrek beraien bizitzak aldatzera eramango ditu.

ARGUMENTUA

Emeren eta bere adiskide eta lankide den Hamarren istorioa da. Biak erdi katu, erdi pertsona dira eta bien artean sekulako mozkorraldiak hartzeaz gain, atsekabea Bilbo osotik zabaltzeko helburua izango dute. Eme neska gogorra da, inori hurbiltzen usten ez diona, eta bere burua maitatzen ez duena. Hasiera batean jendeari atsekabea sorraraztea gustatuko zaio, eta horrekin disfrutatuko du, baina liburua aurrera doan heinean egiten duenaz pentsatzen hasiko da, eta bere gogoetek azkenean bere bizitza guztiz aldatzea eragingo diote. Berarekin batera bere lagun hamar egongo da, txikitan elkar ezagutu eta orain bere langile izango dena, jendeari atsekabea eragiten. Eme izango da Hamar bizitza horretara eramango duena, atsekabearen ideologia barruan sartuko diona, eta azkenean Hamar izango da bertan azkenera arte sinisten jarraituko duen bakarra.

ISTORIOA

Eme eta Hamar Atsekabe Armadako kideak dira. Haren partaideak katuak dira baina pertsonara transformatu ahal dira eta haien filosofia hauxe da: miseriak ekartzen du poza. Horregatik, Emeren eta Atsekabe Armadako beste partaideen zeregina, pertsonak behatzea, oso ondo ezagutzera iristea eta bertan atsekabea txertatzea da. Hala ere, taldeko zenbait partaidek beste motatako egitekoak dituzte. Hamarrek, Emeren lagun onenetariko batek, esaterako, Katu Kaleko norabide bakarretik, atsekabea txertatetik, aldentzen dena garbitzeko dago, hau da, traidoreekin amaitzeko.

Emek, Katu Kalera sartu zen momentutik profesionaltasun handiz burutu du bere lana, pertsonak atsekabez betetzea, esaterako, Ginebra Erregina eta Tutti Frutti zaporeko izozkia gustatzen ez zitzaien neska. Baina taxi baten zain zegoen emakumea ikusi ondoren zerbait aldatu egiten da bere barruan. Maria Maleta birrinduta ikustean, bere biktimarengan pena sentitzen du eta ez du nahi atsekabea hedatzen jarraitu. Baina ez daki Hamarri, bere lagun minari, nola kontatu hori. Hala ere, bere izatearen aldaketak ez dauka atzera bueltarik eta Emek badaki garesti ordainduko duela hori eta badakienez norbaitek hilko duela traidore bihurtzeagatik, bere hiltzailea Hamar izatea erabakitzen du.

EGITURAKETA

Nobela hau nahiz eta kapitulu desberdinen bitartez bereiztuta ez egon, pasarteka egituratuta dago. Idazleak pasarte horiek banatzeko, lehen hitza letra larriz eta mota desberdinez idazten du. Denek istorioa gertatzen den denbora haria jarraitzen dute, nahiz eta batzuetan iraganera, Eme eta Hamar ezagutzen diren garaira, saltoak ematen dituzten, gertaera hori orainarekin lotzeko asmoz. Pasarteak gertaera desberdinak banatzeko eta batzuetan pertsonaien gogoetak sartzeko erabili ditu idazleak gehienbat, dena jarraian izan ez zedin, eta kapitulu desberdinak erabili behar ez izateko. Beraz, autoreak egitura lineala erabili du istorioa kontatzeko, tarteka iraganeko gertaerak azaldu arren, eta pertsonaien gogoetak ere noiz-behinka sartuz.

PERTSONAIAK

Eme. Katu eme bat da, Atsekabe Armadaren partaidea. Horregatik, bere zeregina pertsonengan atsekabea txertatzea da eta hori egiteko, aurretik, pertsona horiek ondo behatu eta oso ondo ezagutzera iritsi behar da. Hasieran, asko gustatzen zaio atsekabea besteengan txertatzearen lana, baina Maria Maleta ezagutzean eta bere malkoak sentitzean, sentiberagoa jartzen da eta bere bizitzari buruzko ikuskera aldatzen zaio, ez du bere lanean jarraitu nahi, ez du atsekabea mundutik hedatzen jarraitu nahi. Hala ere, Hamar, bere lagun-mina, ez da bera bezain sentibera eta horregatik asko kostatzen zaio berari kontatzea.

Hamar. Emeren lagun-mina da, katua berau ere Eme bezala, baina arra. Atsekabe Armadaren partaidea ere bada, baina bere zeregina desberdina da; Katu Kaleko norabidetik, atsekabea txertatzetik, aldentzen dena garbitzea, hau da, traidoreekin amaitzea. Ez du inolako gupidarik sentitzen haren biktimez ez baita Eme bezain sentibera. Gainera, bere lagunik minena, Eme, hiltzeko ez du eskrupulorik, bere lana hori baita. Hala ere, egia da Eme beste batek ez hiltzeko egiten duela, Emek nahiago duelako Hamarrek hiltzea.

BALIABIDEAK

Prosazko lan honetan, narrazioa da nagusi eta sentimenduen deskribapenak garrantzi handia du, batez ere Emeren kasuan. Idazlea narratzaile orojakileaz baliatzen da. Honek, pertsonaiei buruzko datu guztiak dakizki: iragana, pentsamenduak, sentimenduak... Erabilitako hizkuntza euskara batua da, irakurle guztiek erraz ulertzeko modukoa. Liburua, oro har, metafora bat da eta hainbat ikaspen irakatsi nahi dizkio irakurleari. Lehenengoa, zorientasuna, gizaki oren helburu dena, atsekabeen bizi garenean bakarrik baloratzen dugula da. Argi dago, Eme pertsonaiarik garrantzitsuena dela, bera da istorioaren ardatza eta idazlea berataz baliatzen da aldatu den pertsona baten kezkak islatzeko. Inguruko pertsonak aldatu den pertsonarekiko izan dezaketen erreakzioaz hitz egiten digu Irati Jimenezek, eta horrek pertsonarengan eragiten duen izu eta beldurrez. Baina beldur horiek irudikatzen mundu fantastiko bat eraiki du idazleak, mundua errealaren barruan kokatuta dagoena. Jimenezek errealiterata hurbiltzeko erabiltzen du fantasia eta irakurlea fantasia mundu horretara errazago hurbiltzeko, Iratz Inziarteren ilustrazio agertzen dira eleberri osoan zehar.

IRITZIA

Aztertu berri dugun testua Irati Jimenezek idatzitako *Atsekabe Zaitut* izeneko eleberria da. Misterioa, intriga eta amodioa oinarri nagusitzat duen liburu honek Bilboko bi katu-pertsonen bizitzak kontatzen ditu, atsekabearen hedapenaren barnean sarturik daudenak, armada baten soldaduak izango bailitzan bezala. Gaur egungo garaian kokatuta, garaiko zertzeladak sartzen ditu noizbehinka idazleak, nahiz eta batzuetan antzinako oroimenak ere tartean kokatzen dituen, baina orokorrean edozein garaitan koka daitekeen istorioa da.

Egiturari begiratzuz gero, hasiera nahiko korapilatsua izan daiteke irakurlearentzat, ez baitaki pertsonaiak katuak, pertsonak edo zer diren, baina liburuak aurrera jarraitu ahala irakurleari sortu zaizkion galderak erantzuten joaten da, eta horrela istorioa ulergarria bihurtzen da. Ildo beretik jarraituz hasieran ez da oso ondo ulertzen protagonistek egiten dituzten ekintzei buruz, baina aurrean azaldu dudak bezalaxe, 47. orrialdetik aurrera, gutxi gorabehera gauzak ulergarri bihurtzen dira. << Jendearen benetako izana asmatzen du, bihotzera begiratzen die eta Atsekabearen hazia bertan landatu >>, bertan Emek eta Hamarrek egiten dutena azaltzen du eta hortik aurrera dena ulertuz irakurketa atseginagoa bilakatzen da.

Eduki erotikoen aldetik, kontakizuna nahiko arraroa bihurtzen du idazleak, alde batetik istorioaren ardatza den atsekabea baitago, eta bestetik hainbat pasarte erotikoa sartzen ditu, batzuetan batak eta besteak beraien arteko erlaziorik eduki gabe. Horrek ere irakurlea gehiago nahasten du, istorioaren funtsa zein den jakin nahi duenean etengabeko pasarte erotikoa sartzen baitira erdian, eta horrek errakuntzara eramanez lezake, batzuetan sexu harremanak istorioaren ardatza baitirudite.

Maitasunak ere istorioaren zati garrantzitsu bat hartzen du, bi protagonista nagusien artean maitasuna baitago, baina ez beraien artean bakarrik. Hasiera batean Emek Hamar atzera botatzen du, beldurra baitu, baina hurrengo pasartean argi geratzen denez, Hamar benetan maite du, *"Zenbat pisatzen duen esan ezin dionak. Egunero nahi du, inoiz ezin du eta ezintasun horrek hiltzen du, beste ezerk hil ez duen bezala."* Horrelako maitasun istorioak oso politak dira liburuetan jartzeko, baina Emek azkenean Katu Kaleko Andereñoarekin duena harrigarria eta berezia da, maitasun mota desberdin bat delako eta horrek liburuari originaltasuna ematen dio, istorioan zehar gertatzen diren gauza guztiekin gutxi izango balitz moduan.

Hori guztia dela eta, Irati Jimenezek *Atsekabe Zaitut* liburua orain arte irakurritako istoriorik originalena da, nahiz eta hasiera korapilatsua izan gerora zalantzak argitzen baitira eta gertaeraren benetako esentzian arreta jartzen hasi zaitezke. Liburu hau gauza berriak eta guztiz desberdinak gustatzen zaizkien pertsonen gomendatzen diegu, nahiko berezia baita, apartekoa, emozio berrien bila daude pertsonentzat aproposena.

BIBLIOGRAFIA

Atsekabe Zaitut, Irati Jimenez, *Txalaparta* argitaletxea.

WEBGRAFIA

- <http://kritikak.armiarma.com/?p=5013>
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Irati_Jimenez
- <http://atalak.eus/>